



UPV/EHU

IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

UPV/EHUKo IKASLEEN ORDEZKARIEN GIDA



Dokumentu hau ordezkari-tza organoren batean, bai Ikastegian bai Campusean edo Unibertsitatean, beren kideak ordezkatzeko hautatu diren unibertsitate ikasleei dago zuzenduta bereziki.

2011-2012 ikasturtea

Gida hau Ikasleen Errektoreordetzak antolatutako eta ordaindutako **UPV/EHUko Ikasleen Ordezkarien I. Jardunaldietan** egin zen. Jardunaldiak Eibarren egin ziren, 2011ko uztailean, eta hauek hartu zuten parte:

Arroyo, David	(Donostiako Erizaintzako UE)
Babaze, Jokin	(Zuzenbide Fakultatea. Donostia)
Ferrero, Lidia	(Donostiako Erizaintzako UE)
Garrapiz, María	(Zuzenbide Fakultatea. Donostia)
Gutiérrez, Mikel	(Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE)
Llorente, Adrián	(Medikuntza eta Odontologia Fakultatea. Donostiako Irakasgunea)
Martín, Iker	(Bilboko Ingeniaritza GET)
Martinez, Unai	(Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE)
Ortega, Sara	(Bilboko Ingeniaritza GET)
Rueda, Iker	(Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE)
Sánchez, Iker	(Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE. Barakaldo)

Dinamizatzaile gisa:

Llorente, Adrián	(Medikuntza eta Odontologia Fakultatea. Donostiako Irakasgunea)
Martinez, Unai	(Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE)

Hauek osatu eta berrikusi dute:

Barrio, Isaac	(Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko Teknikaria)
Castro, Aratz	(Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea)
Etxegarai, Fernando	(Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko Koordinatzailea)
Llorente, Adrián	(Medikuntza eta Odontologia Fakultatea. Donostiako Irakasgunea)
Martinez, Unai	(Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE)

Azken diseinua eta maketazioa:

Barrio, Isaac	(Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko Teknikaria)
---------------	--

Argitaratzailea:

UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetza

Gida honetako edukiak diseinatzeko, Adrian Llorentek, Jokin Babazek, Isaac Barriok eta Fernando Etxegarai UPV/EHUren Ikasle Kontseiluak 1992an diseinatutako gida hartu zuten erreferentzia gisa. Ondoren, Aratz Castrok edukiak berrikusi eta osatu zituen.

Gida honen egileok uste dugu beharrezkoa dela Adrian Llorentek erakutsitako interesa aipatzea, gida eguneratzea proposatu baitzuen eta horretara bultzatu baikintuen. Horrez gain, ezin dugu Ikasleen Errektoreorde Elena Bernaras aipatu gabe utzi, bere mezenasgoagatik.



Lan hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean hedatzeko baimena duzu, baita aldatzeko eta merkataritza helburuekin erabiltzeko ere. Lanaren kredituak aitortu beharko dituzu, lana bera eta UPV/EHUko Ikasle Kontseilua esplizituki aipatuta (baina zure lana edo horren erabilera babesten duela iradoki gabe). Lana aldatuz gero, edo lan eratorri bat sortuz gero, hau bezalako baimen batekin bakarrik heda dezakezu.

Aurkibidea

1. AURKEZPENA	7
2. UPV/EHUko HAUTESKUNDE SISTEMA	9
2.1. Hautagaitzen aurkezpena	9
2.2. Kanpaina	10
2.3. Hauteskundeak	10
3. PARTE HARTZEKO ETA ERABAKITZEKO ORGANOAK ETA ESPARRUAK	11
3.1. Ikasle Kontseiluak	12
3.2. Ikasle Kontseiluen osaera eta funtzioak	12
3.3. Kide anitzeko organoak	13
4. IKASLEEN ORDEZKARIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	16
5. BALIABIDE ERABILGARRIAK	17
5.1. Baliabide ekonomikoak	17
5.2. Zerbitzu Juridikoa	17
5.3. Baliabide informatikoak/telematikoak	17
5.4. Itzulpen Zerbitzua	19
5.5. Irudia	19
5.6. Arautegien zerrenda	20
6. ERANSKIN INTERESGARRIAK	21
I. Hautagaitza eredia	23
II. Kontseilua eratzeko akta eredia	24
III. Bilerarako deialdi eredia	25
IV. Bilerako akta eredia	26
V. Ziurtagiri “orokorraren” eredia	27
VI. Ikastegietako Ikasle Kontseiluen telefonoak eta helbide elektronikoak	29
VII. Ikasleen ordezkarientzako interesgarriak diren errektoreordetza eta zerbitzu batzuk	31
7. KEXAK IZAPIDETZEKO PROTOKOLOA	35

1. AURKEZPENA

Ikasleen Ordezkarien Gida 1992an sortu zen, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren ekimenez, eta, ordutik, berriro argitaratu eta eguneratu gabe zegoen. Urte horretatik, Unibertsitatearen Estatutuak askotan aldatu dira, baita ikasleei eta beren ordezkaritza organoei dagozkien arautegiak ere.

Ordutik egin diren arau aldaketa nagusiak Unibertsitateko Ikasleen Estatutua eta 2010ean onartutako eta 2011n argitaratutako UPV/EHUren Estatutuak izango dira seguruenik; izan ere, ikasleei zuzenean eragiten dieten arauak bateratzeko eta eskubide eta betebeharrak guztiak arautegi bakar batean (Ikasleen Arautegia) biltzeko beharra agerian uzten dute.

Aurkezpen hau aprobetxatu nahi dugu 2011ko uztailaren 18an, 19an eta 20an Eibarren egindako *UPV/EHUko Ikasleen Ordezkarien I. Jardunaldietan* parte hartu zuten pertsona guztiei beren lanagatik eta erabilitako denboragatik eskerrak emateko. Jardunaldi horiek Ikasleen Ordezkarien Gida hau egiteko oinarri gisa erabili dugun lehen zirriborroa egitea ahalbidetu ziguten. Gida hau testu erabilgarria eta, aldi berean, Unibertsitatea hobetzeko eta gure kideak ordezkatzeko lan egin nahi duzuenek erraz ulertzeko modukoa izatea nahi dugu.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiogu UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzari, gida hau egiteko emandako laguntzagatik; ez alderdi ekonomikoan bakarrik (gidaren argitalpena finantzatu du), baita alderdi teknikoari dagokionez ere, gida argitaratzeko beharrezko baliabideak eta langileak ahalbidetu baitizkigu.

Gida honetan jasotako edukiak zuzenean edo zeharka gure Unibertsitateko ikasleei laguntzen eta horiek ordezkatzeko arituko garen edo dagoeneko aritzen garen pertsona guztiarentzat interesgarriak izatea espero dugu.

UPV/EHUko Ikasle Kontseilua

2. UPV/EHUko HAUTESKUNDE SISTEMA

Ikasleen ordezkaritza maila ezberdinetan dago egituratuta: ikastegia, campusa eta UPV/EHU orokorrean. Dena den, ikasleek hiru ordezkarri mota hautatuko dituzte zuzenean, beren eskubideak defendatzeko, beren interesak ordezkatzeko eta Unibertsitatearen kudeaketan parte hartzeko: klaustroko ordezkarriak (edo klaustrokideak), Ikastegiko Batzarrekoak (edo batzarkideak), eta taldeko ordezkarriak. Ondoren, ordezkaritza egitura osatzeko barne hauteskundeak egingo dira.

Lehenengo bien hautaketa **bi urtez behin** egiten da, Hauteskunde Arautegi Orokorraren arabera. Ordezkarri horiek hautatzeko, denek bozkatu behar dute, zuzenean eta isilpean, ikasturte hasieran. Taldeko ordezkarriak, aldiz, **urtean behin** hautatzen dira, ikasturtea hasi eta aste gutxira; Ikasleen Arautegiak arautuko du alderdi hau seguruenik.

2.1. Hautagaitzen aurkezpena

UPV/EHUREN Gobernu Kontseiluak, besteak beste, erroldak argitaratzeko eta hautagaitzak aurkezteko epeak eta bozketa egunak ezarriko dituen hauteskunde egutegia onartuko du. Ikastegiek Batzarreko kideak hautatzeko beren egutegiak onartu beharko dituzte, baina, oro har, Gobernu Kontseiluak ezarritako egutegiarekin bat etorri ohi dira. Egutegia ikastegiko iragarki tauletan argitaratu beharko da; dena den, aurkitzen ez baduzu, joan zaitez Dekanotzara/Zuzendaritzara eta bertan galde ezazu.

Hautagaitzak Hauteskunde Batzordeko presidenteari bidali behar zaizkio, paperezko formatuan, eta UPV/EHUREN erregistroetako edozeinetan erregistratu behar dira. Gogoratu kremlera erako zerrendak izan behar dutela (mutila eta neska). Salbuespen gisa, ordena hori hausteko baimena emango da, betiere, gutxienez ikasleen % 80 sexu berekoak badira. Honako datu hauek barne hartu behar ditu:

- Hautagaitzaren izena.
- Hautagaitza osatzen duten pertsonen izen-abizenak, NAN zk. eta sinadura.

Hautagaitza osatzeko ordena garrantzitsua da, ordezkarriak ordena horretan hautatuko baitira. Hautagaitzarako ordezkoak izatea gomendatzen dugu, titularrek dimitituko balute ere.

Hauteskunde Batzordeak aurkeztutako hautagaitzak aztertuko ditu, eta, irregulartasunen bat aurkituz gero, zerrendako lehenengo pertsonari jakinaraziko dio, konpon dezan. Hautagaitza zuzentzean, berriro aurkeztu behar du Erregistroan, ezarritako epean. Adierazitako epean halakorik egin ezean, hautagaitza atzera botako da.

2.2. Kanpaina

Hautagaitzak behin betikotzat jo ondoren (aurrez behin-behineko izendatu eta aurka egiteko epea amaitutakoan), hasiera emango zaio hauteskunde kanpainari:

- Seguruena ikastegiek laguntza ekonomikoa edo eskolak eteteko aukera emango dizute, hauteskundeetara aurkezteko dituzuen arrazoiak azaldu ahal izan ditzazuen. Horretarako baimena ikastegiko administratzaileari eskatu behar diozue.
- Interesgarria da, zuen hautagaitzarekin batera, egin nahi dituzuen hobekuntza proposamenak aurkeztea edo hautagaitza desberdinen arteko eztabaidak edo hizketaldiak antolatzea, ikasleek beren balorazioa egin dezaten.

2.3. Hauteskundeak

Hauteskundeak egutegian zehaztutako egunean egingo dira, eta botoa ikastegietan jarritako hautestontzietan eman beharko da.

Botazio egunean bertaratu ezin baduzu, zure botoa egun batzuk lehenago eman dezakezu zure ikastegiko idazkaritzan, NANaren edo unibertsitateko txartelaren fotokopia bat eramanda. Botazioak egun osoa iraungo du, eta, amaieran, botoen zenbaketa publikoa egingo da. Banaketa egiteko hondar handienaren sistema erabiliko da, aniztasun handiagoa bermatzen baitu.


Aurten, berrikuntza gisa, boto elektronikoa jarri da martxan. Horri esker, ikasleek Internet bidez bota dezakete, ikastegira joan beharrik izan gabe.

Behin-behineko emaitzak hurrengo egunean argitaratuko dira, eta ordezkariak ez dira izendatuko behin betiko emaitza argitaratu arte. Irregularitasunen bat egon dela uste baduzu, dagokion errekurtsioa aurkez dezakezu denbora tarte horretan.

Hautagaitzek ikuskatzaileak edo ahaldunak izenda ditzakete, botazioak behar bezala egiten direla bermatzeko.

3. PARTE HARTZEKO ETA ERABAKITZEKO ORGANOAK ETA ESPARRUAK

Diagrama honek ikasleen ordezkaritzak antolatuta dauden modua erakusten du, Ikasle Kontseiluen bidez, eta baita ordezkaritza organo guztiak eta horien arteko harremanak ere.



Ikasle gisa, bi urtez behin Ikastegiko Batzarrean eta Klaustroan izan nahi dugun ordezkari-tza zuzenean, hauteskondeen bidez, hautatzeko aukera dugu. Ordezkari-tza hori piramide forman egituratuta dago, eta lehenengoak aukeratu ondoren, barneko hautaketak egiten dira, aurreko eskema osatu arte.

Ikasleez gain, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek osatzen dituzte Ikastegiko Batzarra eta Klaustroa, ezarritako portzentajeetan. Ikastegiko Batzarrean ikastegiari dagozkion gaiak lantzen dira, ikasleengan eragin zuzenagoa dutenak, eta Klaustroan, berriz, gai orokorragoak.

Dena den, ikasleek beren eskubideak eta interesak defendatzeko organoak dituzte: Ikasle Kontseiluak, ikasleek bakarrik osatutakoak. Horiek honela egituratuta daude: Ikastegiko Kontseiluak, Campuseko Kontseiluak eta UPV/EHUko Ikasle Kontseilua. Aipatutako Ikasleen Arautegiak arautzen ditu organo horiek.

3.1. Ikasle Kontseiluak

Behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, jarduneko presidentetzak, edo, hala dagokionean, Ikastegiko Zuzendaritzak, ikastegiko Ikasle Kontseiluko pertsona bakarreko organoak hautatzeko bilkura deituko du. Organo horietarako hautagaitzek gutxienez Presidentetzarako hautagai bat eta Idazkaritzarako beste bat izan beharko dituzte. Hautaketaren emaitza Ikastegiko Zuzendaritzari eta UPV/EHUko Ikasle Kontseiluari jakinarazi beharko zaio.

Ikastegietako Ikasle Kontseilu guztietako pertsona bakarreko organoak aukeratu ondoren, Campuseko Ikasle Kontseiluko Presidentetza osatzeko eta hautatzeko bilkura bat antolatuko da.

Azkenik, hiru campusetako Ikasle Kontseiluak osatu ondoren, UPV/EHUko Ikasle Kontseilua osatzeko eta bertako Presidentetza hautatzeko bilkura bat egingo da. Azken bi kasu horietan, Presidentetzak bere Zuzendaritza Batzordea osatuko duten pertsonak hautatu ahal izango ditu bere inguruko ikasleen artean; betiere, idazkaria Ikasle Kontseiluko kideen artean hautatzen badu.

3.2. Ikasle Kontseiluen osaera eta funtzioak

Ikastegiko Ikasle Kontseilua Ikastegiko Batzarreko ikasle ordezkariak bakarrik osatzen dute, eta bere funtzioa ikastegiari bakarrik eragiten dioten gaiak lantzea, eta, ondoren, beharrezkoa izanez gero, Ikastegiko Zuzendaritzari jakinaraztea da. Organo honen beste funtzio batzuk sailtetako ikasleen ordezkariak hautatzea eta sektore elkarrean parte hartzea dira.

Sektore elkarteak titulazioren bat komunean duten eta horri buruzko gaiak lantzen dituzten hainbat unibertsitatetako Ikasle Kontseiluak bateratzen dituzten estatu mailako elkarteak dira. Gure unibertsitatean, Ikasle Kontseiluek elkarte horietara sartzeko aukera dute, betiere, Ikasle Kontseiluak batzarrean onartuz gero. Elkarte horietara sartzeko, baliteke urteko kuota bat ordaindu behar izatea, baita bilkurek sorraraz ditzaketen bestelako gastuak ere. Horretarako, Unibertsitateak bilkura horiek sorraraz ditzaketen gastuak ordaintzeko aurrekontu partida bat ezartzen du. Diru hori eskuratzeko, nahitaezkoa izango da aurrez eskaera bat egitea Ikasleen Errektoreordetzari.

Campuseko Ikasle Kontseilua, ikastegietako Ikasle Kontseiluetako Presidentetzak osatzen dituzten pertsoez edo horiek eskuordetutakoez gain, Campus horrek UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan duen ikasle ordezkariak osatzen du. Kontseilu honen funtzioetako bat Campusari eragiten dioten gaiak, Ikastegiko Ikasle Kontseiluari dagozkion gaietatik haratago doazenak, lantzea da. Estatutu berriak onartu ondoren sartutako berrikuntza bat Campuseko Batzarrerako ikasleen ordezkariak hautatuko duela da, ikastegi bakoitzeko pertsona bat hautatu behar duela kontuan hartuta.

Azkenik, **UPV/EHUko Ikasle Kontseilua** modu paritarioan osatuko dute Gobernu Kontseiluko ikasleen ordezkariak eta Campusetako Ikasle Kontseiluetako ordezkariak, Ikasleen Arautegian ezarritakoari jarraituz. Kontseilu honen funtzioetako batzuk izango dira, besteak beste, UPV/EHUko ikasleen interes orokorrak defendatzea, eta beste unibertsitate organo batzuetako ikasleen ordezkariak koordinatzea eta babestea. Gainera, UPV/EHUko Epaimahai Berezian eta Batzorde Paritarioan hartzen du parte.

Zehazki, klaustrokide guztien % 22,05 ikasleak dira. Gure ordezkariak berritu ondoren, bilkura bat egiten da, ordezkariak Gobernu Kontseiluko, Gradu Batzordeko, Graduondoko Batzordeko, Euskara Batzordeko eta Estatutuen Batzordeko ordezkariak hauta ditzaten.

3.3. Kide anitzeko organoak

✓ SAILAK

Sailak, batez ere, **irakaskuntza eskaintza zehazteaz, ematen dituzten irakasgaiak koordinatzeaz**, ikasturte horretako irakasleak antolatzeaz eta saileko irakasgaiekin eta irakasleekin sor daitezkeen arazo guztiak konpontzeaz arduratzen dira. Saileko erabakiak Saileko Kontseiluaren bidez hartzen dira; bertan ikasleen ordezkariak ere badaude, Ikastegiko Ikasle Kontseiluak hautatutakoak. Sailak ikastegi batean baino gehiagotan ematen baditu irakasgaiak, ikastegi horietako Ikasle Kontseiluek ados jarri behar dute ikasleen ordezkariak proposatzeko. *UPV/EHUko Sailen Oinarrizko Arautegiak* eta, hala badagokio, *Saileko Arautegiak* erregulatzen dituzte sailak.

✓ **IKASTEGIKO BATZARRA**

Ikastegiko Batzarra, gainerako organoak bezala, irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta ikasleek osatzen dute. Organo hau irakaskuntza eskaintza, ikastegiko azpiegiturak, eta abar onartzeaz arduratzen da. *Ikastegien Oinarrizko Arautegiari* jarraitzen dio, eta, hala dagokionean, bere arautegiari. Bertan azalera ditzakezu eskolen eta praktiken antolamenduari dagozkion gai guztiak.

✓ **CAMPUSEKO BATZARRA**

Campuseko Batzarra, besteak beste, Campuseko instalazioez, eskaintza kulturalaz eta esperientzia gelez arduratzen den Campuseko Errektoreordetzaren kontrol organoa da. Organo horiek beren barneko arautegiari jarraitzen diote.

✓ **KLAUSTROA**

Unibertsitateko Klaustroa unibertsitateko kideen ordezkaritza organo nagusia da. Bere eskumenen arloan hartzen dituen erabakiak kide anitzeko gainerako organo guztientzako lotesleak dira. Une honetan, bere funtzio nagusiak Estatutuak onartzea, aldezia hautatzea, batzorde desberdinetako ordezkariek hautatzea eta Kudeaketa Txostena onartzea dira.

- **Akademia Antolakuntzako Batzordea**

Batzorde honi AADB ere deitzen zaio. Bertan, graduako eta graduondoko irakaskuntzarekin zerikusia duten arautegi guztiak lantzen dira, eta ezarri edo kendu beharreko titulazioak proposatzen dira. Une honetan, Klaustroko ikasleek hautatutako 3 ikasle barne hartzen ditu. Estatutu berriak direla eta, batzorde hau bitan banatu da: Graduako Batzordea eta Graduondoko Batzordea. Bakoitzean dagokien zikloko 5 ikasle egongo dira, eta guztira 21 kidek osatuko dituzte.

- **Euskara Batzordea**

Euskara Batzordea hizkuntzaren normalizazioa sustatzeko eta euskalduntze planaren segimendua egiteko neurriak proposatzeaz arduratzen da. Guztira 18 pertsonak osatzen dute, eta horietatik hiru ikasleak dira.

- **Estatutuen Batzordea**

Estatutuen Batzordea estatutuen proposamena eta Klaustroaren Arautegia aztertzeaz eta proposatzeaz arduratzen da. Guztira 11 kide ditu; horietatik bi ikasleak dira. Kopuru oso esanguratsua ez badirudi ere, ikasleen ordezkaritza horri esker organoetan dugun garrantzia areagotzea eta ikasleen “grebarako” eskubidea aitortzea lortu genuen.

✓ **GOBERNU KONTSEILUA**

Gobernu Kontseilua UPV/EHUko organo garrantzitsua da; bertan onartzen baitira Unibertsitateko arautegi osoa, egutegi akademikoa, titulazioak, euskalduntze plana eta Unibertsitateko plan estrategiko guztiak.

✓ **GIZARTE KONTSEILUA**

Gizarte Kontseilua gizartea (sindikatuak eta patronala), erakundeak (aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) eta Unibertsitatea (Errektoretza Taldeko hiru kide, irakasle bat, AZPko langile bat eta ikasle bat) ordezkatzen dituen organoa da.

✓ **UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZA PUBLIKOA KOORDINATZEKO KONTSEILUA**

Organo hau Eusko Jaurlaritzaren unibertsitate arloko sail eskudunaren menpe dago. Unibertsitateko arautegi osoari buruzko txostenak egiten ditu. Txosten horiek nahitaez bete behar ez badira ere, garrantzitsua da ikasleak bertan egotea, Sailaren proposamenak zuzenean ezagutzeko. Eusko Jaurlaritzaren Saileko eta UPV/EHUko ordezkariek osatzen dute, modu paritarioan. UPV/EHUren aldetik, errektoreak Gobernu Kontseiluko ikasleen ordezkarien artetik hautatutako ikasle batek hartzen du parte.

✓ **ESTATUKO IKASLE KONTSEILUA**

Duela gutxi sortutako organoa da, eta aurrekoak bezala, unibertsitateko araudi guztiaren berri ematen du, baina honako honek Hezkuntza Ministerioarena. Aurrekoan ez bezala, kide ia gehienak ikasleak dira; honen txostenak ere ez dira lotesleak.

✓ **BATZORDEAK**

Unibertsitate organo guztietan horien lana arintzeko batzorde delegatuak sor daitezke. Organo bakoitzak barne hartzen dituen batzordeak zehazki ezagutzeko, beharrezkoa izango da beren funtzionamendu arautegira jotzea; izan ere, bertan zehaztuko dira organoen eskumenak eta osaerak (ikasleen ordezkaritza nahitaezkoa izango da).

4. IKASLEEN ORDEZKARIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Ikasleen Arautegiak bilduko ditu ikasleen ordezkarien eskubideak eta betebeharrak, baita goragoko arautegiek ere (esaterako, Unibertsitateko Ikasleen Estatutuak eta UPV/EHUren Estatutuak).

- ✓ **ESKUBIDEEN** artean, besteak beste, honako hauek aipatu behar dira:
 - Ikasleei eragiten dieten gaietarako buruzko informazio zehatza eskatzea eta jasotzea.
 - Beren ordezkariaren modu askean gauzatzea.
 - Erabakiak hartzeko eta politika estrategikoak ezartzeko prozesuan parte hartzea, erantzukizunaren zati bat beren gain hartuta.
 - Beren zeregin akademikoak ordezkariaren jarduerekin bateratzeko aukera izatea, beren prestakuntzari kalterik egin gabe. Zehazki, ikasleen ordezkari gisa gobernu eta/edo ordezkariaren organoetara bertaratu behar izanagatik, beren prestakuntzak kalteak jasan badituzke, irakasleek tutoretza osagarriak antolatuko dituzte, ordezkariari irakasgaia arakastaz gainditzeko beharrezko ezagutza eskuratzeko aukera bermatzeko.
 - Ikasleentzat interesgarria izan daitekeen informazioa hedatzeko beharrezko baliabide ekonomikoak, espazio fisikoak eta baliabide telematikoak izatea.
 - Taldeko erantzukizunaren esparruan, ordezkariaren aktiboa eta parte-hartzailea izatea Unibertsitateko gobernu eta ordezkariaren organoetan, dagokion arautegian eta gainerako unibertsitate arautegian ezarritakoari jarraiki.

- ✓ Hauek dira ikasleen ordezkarien **BETEBEHARRAK**, besteak beste:
 - Bilkuretara joatea eta UPV/EHUko organoetan ordezkariaren duen taldearen proposamenak, interesak, ekimenak eta kritikak bideratzea eta defendatzea; betiere, UPV/EHUko arautegiaren arabera edozein ikasle bere ekarpenak zuzenean egiteko duen eskubideari kalterik egin gabe.
 - Beren izendapenaren helburu diren lanak eta erantzukizunak eraginkortasunez eta arduraz gauzatzea.
 - Beren karguagatik jasotako informazioa ondo erabiltzea, konfidentziasuna errespetatuta, hala dagokionean.
 - UPV/EHUren ondasunak eta eskubideak babestea, sustatzea eta defendatzea.
 - Beren funtzioak edo eskubideak gauzatzeko utzitako lokalak, materiala, dokumentazioa eta bestelako ondasunak zaintzea eta ondo erabiltzea.

5. BALIABIDE ERABILGARRIAK

UPV/EHUK Ikasleen Kontseiluari lokal bat utziko dio, altzariak, telefonoa eta gutunak jasotzeko postontzi bat izango dituena. Baita bulegoko materialaren gasturako eta jardueretarako aurrekontu bat ere.

5.1. Baliabide ekonomikoak

Ikasle Kontseilu bakoitzak UPV/EHUren Aurrekontu Orokorretan ezarritako urteko aurrekontu bat du. Aurrekontu horrekin, Ikasle Kontseiluak bulegoko materialaren eta gauzatu nahi dituen jardueren gastuak ordaindu behar ditu. Horrez gain, hainbat jarduera egiteko edo titulazioko sektore bilkuretara joateko laguntzak jaso ahal izango ditu, besteak beste. Laguntza horiek eskuratzeko, sailetara, ikastegietara, errektoreordetzetara eta horien zuzendaritza desberdinetara, edo UPV/EHUko Ikasle Kontseilura jo behar duzu, bete beharreko epeen, baldintzen eta formularioen berri izateko.

Unibertsitateak hitzarmenak ditu enpresa jakin batzuekin, unibertsitateko kideei hainbat zerbitzu eskaini diezazkieten. Eskaerak eta gastuak hitzarmen horien arabera egin behar dira. Bai material suntsigarria bai garraio, bidaia, catering eta halako beste zerbitzu batzuk eskatzeko, interesdunek laguntza eskatutako organoan bertan kontsultatu behar dituzte UPV/EHUK dituen hitzarmenak.

Ikasleen ordezkarien eskubidea da beren funtzioak gauzatzearen ondorioz sortutako gastuak deialdia egin duen organoak ordaintzea. Organoa behin ezagututa eta dokumentazioa jaso ondoren, interesgarria da oso deialdia arreta handiaz irakurtzea, bai eta kasuan kasuko inprimakiak zehatz-mehatz betetzea ere, eskariaren helburua eta baldintzak behar bezain argi azalduko badira. Organo horrek ordainketa egin dezan, inprimakia bete eta jatorrizko tiketak eta fakturak erantsi behar dituzu.

5.2. Zerbitzu Juridikoa

Ikasle Kontseiluek edozein zalantza juridiko Unibertsitateko Zerbitzu Juridikoari galdetzeko aukera dute. Modu horretan, arautegien interpretazio okerrak eta, ondorioz, etorkizuneko errekurtsioak saihestu ahal izango dituzu. Harremanetan jartzeko, secretariageneral@ehu.es helbide elektronikoa edo 94 601 2020 telefonoa erabil ditzakezu.

5.3. Baliabide informatikoak/telematikoak

IKT Gerenteordetzak Irakaskuntza Sareko Zerbitzuen Gida du, Gerenteordetzak ikasleei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak azaletik deskribatzen dituena. Horrez gain, <http://www.tic.ehu.es> ("Zerbitzuak" atalean) webgunean eskainitako zerbitzu guztiak kontsulta daitezke. Ikasle Kontseiluek horietako batzuk eska ditzakete, irakasle eta ikertzaileei eta AZPko langileei bakarrik zuzenduta daudela jartzen badu ere. Zerbitzu horietako edozein eskatu aurretik UPV/EHUko Ikasle Kontseiluarekin harremanetan jartzea gomendatzen dugu.

✓ **Helbide elektronikoak**

Ikastegiko Ikasle Kontseilu guztiek Unibertsitateko posta kontu bat dute, eta Kontseiluko presidenteak hartuko du kontu horren ardura bere gain. Kontu elektroniko horretara sartzeko, zure Unibertsitateko kontura bezala sartu behar duzu, baina, kasu honetan, erabiltzailea ekrXXXXXXXX@ehu.es motakoa izango da (X letrak zenbakiak dira). Erabiltzailea eta pasahitza ez badakizkizu, zure ikastegiko administratzailearekin hitz egin behar duzu. Presidentetza aldatuz gero ere, administratzaileari horren berri eman behar diozue. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko kideek Unibertsitateko helbide elektronikoak bakarrik erabiliko dute harremanetan jartzeko.

Argitu behar dugu posta helbidea ez dela ekrXXXXXXXX@ehu.es, postontzi bati lotutako lau ezizen baizik (gaztelaniaz eta euskaraz). Edonork idatz dezake kontu horietara, eta, mezua ikusteko, postontzia begiratu besterik ez duzu egin behar, lehen aipatutako erabiltzailea sartuta. Begiratu gida honen *VI. eranskinean* ikastegietako Ikasle Kontseiluei emandako helbide elektronikoak.

Euskarazko helbide laburrak hedatzen saiatuko gara, baina Ikasle Kontseilu bakoitzak egokiena iruditzen zaiona hedatu ahal izango du.

Mezuak idatzitakoan, hartzaileek ezizen lehenetsia ikusiko dute (motza euskaraz). Ikastegiko Ikasle Kontseiluak ezizen lehenetsia aldatu nahi izanez gero, bere ikastegiko administratzailearekin jarri beharko du harremanetan.

✓ **Telefonoa eta Faxa**

Oro har, Ikasle Kontseiluaren lokalak **telefonoa** izaten du, eta ikasleek telefono finkoetara dei dezakete bertatik. Kasu batzuetan, mugikorretara deiak egiteko funtzioa erabilgarri jartzeko aukera dago, aurrez telefonia zerbitzuari eskaera eginda. Edozein eskaera edo kontsulta egiteko, jar zaitez harremanetan Telefonia Zuzendaritzarekin, eta Ikasle Kontseiluan dituzun zerbitzuei eta, hala badagokio, zerbitzua zabaltzeko eskaera egiteko moduari buruzko informazioa eska ezazu.

Unibertsitatearen barruan deiak egin nahi izanez gero, 13 (Gipuzkoa), 14 (Bizkaia) edo 15 (Araba) aurrezenbakia markatu behar duzu, eta, ondoren, zenbakiari dagokion lau zifra luza (adibidea: 2000). Mugikor korporatiboetara deitu behar izanez gero, 17 aurrezenbakia markatu behar duzu. Unibertsitatetik kanpo deitu nahi baduzu, 0 zenbakia markatu behar duzu zenbakiaren aurretik, adibidez...

UPV/EHUko Ikasle Kontseilua Bizkaian dago eta 94 601 2449 telefono zenbakia du. Bizkaitik deitzen baduzu, 2449 bakarrik markatu behar duzu. Alabaina, beste campus batetik deitzen baduzu, 14-2449 markatu behar duzu. Bestela, 0-94 601 2449 marka dezakezu.

Gidaliburu honen *VI. eranskinean* aurkituko dituzu UPV/EHUko ikastegietako ikasleen kontseilu guztien telefonoak. Honez gain, *VII. eranskinean*, beste zenbait telefono ematen dizkizut, kontseiluaren funtzionamendurako interesgarri izanen zaizulakoan.

Ikastegiko **faxa** erabiltzeko, Dekanotzarekin edo Ikastegiko Zuzendaritzarekin harremanetan jartzea eta baldintzei buruzko informazioa eskatzea gomendatzen dizugu.

✓ Posta arruntarentzako ontzia

Ikastegiak barneko postarentzako ontzi bat utziko dio Ikasle Kontseiluari, posta arrunta bertan jasotzeko. Atezainek postontzian utziko dituzte ikastegira iristen diren gutunak. Interesgarria izango litzateke Ikastegiko Ikasle Kontseilu bakoitzak posta jasotzeko eta irekitzeko arduradun bat izendatzea.

✓ Barneko posta/Erregistroa

UPV/EHUK Unibertsitateko organo eta ikastegi desberdinen artean dokumentuak errazago bidaltzeko barneko posta zerbitzu bat du. Zerbitzu hori erabiltzeko ez da zigiturik edo posta helbide osorik behar; nahikoa da gutun-azal itxi batean hartzailea, organoa, ikastegia edo zerbitzua eta Campusa idaztea eta atezaindegian entregatzea.

Kargu akademikoren bati idatzi nahi badiozu (errektorea, errektoreordea, zuzendaria, dekanoa, saileko zuzendaria, Ikasle Kontseilua, eta abar), edozein ikastegitako idazkaritzara gerturatu eta zure eskaera erregistratzeko eska dezakezu. Modu horretan, zure idazkia jasota geldituko da, eta hartzaileak jasoko duela bermatuko duzu. Bi kopia eramatea gomendatzen dizugu; bat Erregistroan uzteko, eta bestea bidali izanaren adierazpena eman diezazuten.

Dokumentazio garrantzitsua bidali behar izanez gero (erreklamazio bat, eskaera formal bat, eta abar), Erregistroa erabiltzea gomendatzen dugu, epeak beteko direla bermatzen baitu. Dokumentua bidali izanaren egiaztatzea edo orri guztien kopia zigitatua eskatu ahal izango da (oso gomendagarria garrantzi handiko kasuetan). Jatorrizko dokumenturen bat bidali behar izanez gero, fotokopia bat eramatea, eta, jatorrizkoarekin batera, Idazkaritzan konpultsa diezazutela eskatzea gomendatzen dizugu.

5.4. Itzulpen Zerbitzua

UPV/EHUko Itzulpen Zerbitzuaren funtzio nagusia Unibertsitateko dokumentu ofizialak euskaratik gaztelaniara edo gaztelaniatik euskarara itzultzea da.

Ikasle Kontseiluak, unibertsitateko organo gisa, deialdiak, aktak eta bestelako dokumentu guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan bidaltzeko betebeharra du. Horretarako, Itzulpen Zerbitzua erabil dezake.

Dokumentazioa itzultzeko, identifikatu eta dokumentazioa behar adinako aurrerapenarekin bidali behar duzu, bilkuraren aurretik itzultzeko denbora izan dezaten. Dokumentua formatu editagarrian igorri beharko duzu (ODT edo DOCX formatu estandarretan) honako helbide hauetara: itzulpenak@ehu.es — traducciones@ehu.es.

5.5. Irudia

Ikasleen kontseilu guztiek, bai ikastegiko kontseiluek nola UPV/EHUkoak berak, logotipoa dute zeinek berea (dokumentu honen azalaren arrazoia nagusia) eta, UPV/EHUREN antzera, zeinek bere estilo arauak ditu. Txantiloia edo erreferentziako formatuak kontsultatzeko, UPV/EHUko ikasleen kontseilura jo behar da.

5.6. Arautegien zerrenda

UPV/EHUko webguneko Idazkaritza Nagusiaren atarian (<http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es>) aurki daitezke Unibertsitate osoari aplika dakizkiokeen arautegiak. Ikastegi bakoitzeko arautegi espezifikoak ikastegiaren webgunean daude (ez badaude, paperean eska daitezke).

Hona hemen arautegi esanguratsuenen izenak eta EHAako edo BOEko argitalpen datak:

✓ **ARAUTEGI OROKORRA**

Unibertsitateen Lege Organikoa (LOU)	BOE, 2001eko abenduaren 24koa
LOU aldatzeko Lege Organikoa	BOE, 2007ko apirilaren 13koa
Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea	EHA, 2004ko martxoaren 12koa
UPV/EHUren Estatutuak	EHA, 2011ko otsailaren 24koa
Unibertsitateko Ikasleen Estatutua (Errege Dekretua)	BOE, 2010eko abenduaren 31koa
Ikasleen Arautegia	Onartzeke

✓ **UNIBERTSITATE ORGANOAK**

Gizarte Kontseiluaren Arautegia	EHA, 2005eko maiatzaren 18koa
Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegia	EHA, 2009ko maiatzaren 26koa
Unibertsitate Klaustroaren Funtzionamendurako Arautegia	EHA, 2011ko urriaren 13koa
